




zakilixut

© Olariagak



➔ HONDAR ALEA

P4-15

Adarraren puntan

GIPUZKOAKO SAGARDO TXAPELKETA. Bittor Lizeaga astigarratarrak jaso du sagardo onenaren saria. Sagardoa egiten jarraitzeko arazoak dituela dio, hala ere.

AMAGIOIA IBAN - DONOSTIA

Aldapeko sagarraren adarraren puntan, txapel bat. Astigarragako Gartziategi sagardotegiko Bittor Lizeagak jantzi du. Tolosako Isastegiko Miel Mari Lasa geratu da bigarren. Donostiako Oiarbideko Xebastian Zabalegi hirugarren. Gipuzkoako Diputazioan ziren atzo hirurak, erakunde horrek antolatu baitu Gipuzkoako Sagardo Lehiaketa. Ekainaren 14an hautatu zituzten irabazleak, eta atzo jaso zituzten oroigarriak, Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu Nuria Lopez de Gereñuren eskutik.

«Gustura gaude, bai horixe. Beti da ona norberaren sagardoa ona dela zabaltzea», zioten sagardogileok Diputazioako korridoreetan, Trono Aretoan www.gipuzkoa.net gunean sortu berri duten Sagarrondo izurri eta gaixotasunak atala aurkezten zuten bitartean.

«Sagardoa saltzeko orduan» antzematen omen dira



BITTOR LIZEAGA sagardogilea, sagardo onenari saria jasotzen. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

horrelako lehiaketen onurak. Bittor Lizeagak, esaterako, salduak ditu jada saritutako sagardo upeleko 30.000 botilak. «Niretzat, hala ere, asko balio du irabazteak. Kritikak ere asko entzuten ditugu, eta halako gauza onak gustura hartzen ditugu».

Bizitza osoa sagardogintzan daramala dio Lizeagak, eta gauza bera egin zutela be-

re aurrekoek: «XVI. mendetik izan da sagardotegia gurea». Sagardoak irauten jakin izan du, azken batean, mendeetan. Eta ez du izan garai berrietara egokitzeko beldurrik. «Gaur egun edan errazagoa da, eta osasunarentzat hobea».

Osasuna aipatu ostean, Jaurlaritza ezartzen ari den arauari buruz hasi da hizketan Lizeaga: «Arau horiek bete-

tzeko, arazoak ditugu sagardogileok. Gure kasuan, obra bat egin behar genuke arauok betetzeko —bete ezean sagardoa egiten ez digutela utziko esana digute—, baina ez Udalak ez Diputazioak ez digute egiten uzten, Donostiako bigarren ingurabidea ondotik pasatuko zaigu eta. Hortxe gaude, itolarrian, eta zuenean hori ere agertzea nahi nuke».

MARATILA 9

AGURTZANE INTXAURRAGA

Arazoak

Atzo arazo bat sortu zitzaidan. Ezer gutxi, beste arazo batzuen potoloa ikusiz: baina, hala ere, nik arazoa nuen: ez nekien zein arazori heldu zutabe honi mila eta laurehun karaktere emateko. Hainbeste arazo neuzkan aukeran. Adibidez: pinta usaina duten arazoak, baina zera pentsatu nuen, Concha Velaskok ere bereari soluzioa bilatu badio, orduan ez dut aitzakiarik arazori duen baino pisu handiagoa emateko, batez ere horrelakoetan usaina kirats bihurtzeko arriskua dagoenean. Arazo koloretsuak ere hor daude. Moreak, adibidez: torturaren edo tratu txarren odolbilduen morea... Eta moretik gorriara pasatze horretan, arazoa potoldu baino gehiago, bulimiaz ginen du egiten da: adibidez, psikotata hiltzaile baten arrastoak axolagabeki komisaria bateko artxibo batean galduta uzten direnean. Nik horri, arazoa beharrean, terrorismoa deitzen diot. Ze, esaten digutenez, terrorismo arazoak larrienak dira, ez?

Gero, badaude arazo beltzak; baina, arazo horiek Afrika aldetik datozenez, ba, potoloak baino gehiago, anorexiakoak direla esango nuke. Eta anorexiak, arazo gisa, ez du oraindik behar duen mamia gizartearen... Beste arazo mota bat: naturalak. Uholdeak ez direnean, lehortekak direla... Horrela omen daude euskal aktoreak ere zinemarekin, errogatiba hutsean.

Eta arazo tradizionalak? Arazoari entzungor eginez arazoa isildu nahi dutenen eskutik sortzen dira horiek. Adibidez, horrelakoa dugu gaur Legebiltzarrean.